


/ Nabarmenezkoak

- > Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek "Ez dok ero" aurkeztuko dute (3. or.)
- > Mini Gascogna nazioarteko estropada Getxon (4. or.)
- > Berdegune gehiago eta murriztuko diren aparkaleku-plazak aurreikusitakoak baino gutxiago Areeta-Zugatzarte-Algorta etorbideetako proiektuan (5. or.)



* Carlos Nuñez, Amparanoia, Judith Mateo, Roberto eta Miren Etxebarria, eta «Cyclical Tango» proiektua Getxoko Folken protagonistak (3. or.)

XXIII San Inazio kontzertua. Uztailak 30, ostirala, 20:15ean, San Inazio parrokiaren José Antonio Urdiain tenorearen eta Pedro Guallar organo-jotzailearen eskutik.

Letren Terrazak. Abuztuaren 3tik 27ra arte, Areetako eta Algortako Geltokia plazetan eta Aldapa parkean.

**A-
GENDA**

Abuztuaren 1ean Guggenheim Museoko zabalgunetik irtengo da

Nazioarteko maila goreneko zortzi talde Getxoko Zirkuituaren 76. edizioan

Bahrain Victorious, Astana Premier Tech, Movistar Team, Trek Segafredo, Cofidis, UAE Team Emirates, Bora Hansgrohe eta Qhubeka Nexthash, guztiak ere UCI World Tour nazioarteko kategorian hantienekoak izango dira Getxoko Zirkuituaren 76. edizioan (Otxoa Anaiak Memoriala), datorren abuztuaren 1an. Horiez gain, UCI Pro Team-eko beste zortzi talde lehiatuko dira Getxon; esate baterako, Euskaltel, Caja Rural-Seguros RGA, Burgos BH, Arkea Sam-sic eta Kern Pharma, besteak beste. Izenei dagokienez, Giacomo Nizzolo, Luis León Sánchez, Carlos Barbero, Juan José Lobato, Juan Ayuso eta Mikel Landaren balizko itzulera dira aipagarrienak. Guztira 21 talde irtengo dira 12:00etan Guggenheim Museoko



zabalgunetik, eta Enekuritik berrera Getxora zuzenduko dira, iaz diseinatutako zirkuitua egiteko. Irteera Getxotik kanpo egingo da lehen aldiz, antolakuntza ahalagintzen ari baita berritzeko eta lasterketa bultzatzen jarraitzeko eta interesa areagotzeko modurik onena bilatzeko, baina betiere sus-

traiak alde batera utzi gabe. Trepelak guztira 193,5 km egin beharko ditu eta helmugara, Foru kalera, 16:45ak aldera ailegatuko dira. Guztira, 14.500€ inguru banatuko dira sarietan eta horietatik irabazleak 5.785€ jasoko ditu. Proba ETBn emango da. Modu horretan, eta azken asteetan COVID-19aren

kutsatzeak gehitzearen ondorioz, lasterketa telebista bidez ikusteko gomendatzen da. *In situ* ikusi nahi dutenei gogoratzen zaie prebentziorako neurriak hartzeko: maskara erabiltzea, jende-pilaketak saihestea eta gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatzea.

Diruz lagun daitekeen lehen aldiari dagozkio, urtarrilaren 1etik maiatzaren 10era

248 aparteko diru laguntza jarduera ekonomikotarako 324.680€-ko zenbatekoarekin COVID-19aren ondorioei aurre egiteko

Udalak, Getxo Ekinez COVID-19aren ondorio sozio-ekonomikoei aurre egiteko programaren barruan, 324.680€ banatuko ditu jarduera ekonomikotarako 248 aparteko laguntzen artean, diruz lagun daitekeen lehen aldiari dagokiola, hau da, 2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 10era artekoari. Zenbateko hori aurten pandemiari aurre egiteko une bakoitzean hartzen diren neurriek Getxoko negozioetan duten eragina gutxitzeko zuzendutako milioi euroen zati bat da. Etapa horretan 257 eskaera aurkeztu dira, eta horietatik sei ukatu dira eta hiru enpresak atzera egin dute. Diru-laguntzaren abonua ordainketa batean egingo da, emandako zenbateko osoarekin, banketxe-transferentzia bidez, emateko ebaz-



pena ematen den egunetik aurrera.

Enpresen profila

Enpresa onuradunak sektore hauek dira: ostalaritza; gaueko aisia, epealdian itxita egon diren egunengatik; turismoko ostatuak (hotelak eta pentsioak); mediazioko turismo enpresak (bidaia agentziak,

operadore turistikoak); turismo gidariak; garraio turistiko enpresak; turismo aktiboko enpresak, eta Getxon lizentzia duten taxiak. 248 enpresatilik, 173k eskatu dute sektorea ixteagatik eta 75ek udal perimetroko itxituragatik. Hurrengo sektorekoak dira: ostalaritza, 173 (%69,8); taxiak, 43; tu-

rismo zerbitzuetako enpresak, 27 (%10,9), eta ostatuak, 5 (%2). 144 (%58,1) pertsona fisikoak dira, 75 (%30,2) pertsona juridikoak, eta 29 (11,7%) ondasun erkidegoak edo nortasun juridiko propiorik ez duten bestelako elkarteak. Ebazpena: <https://www.getxo.eus/eu/getxolan/>



ABUZTUAK 1 IGANDEA

Bisita gidatua eta antzeztutakoa. "deapie". Antonio Basagoiti. 11:30-12:45. Informazio gehiago: Turismo bulegoa: 94 491 08 00 / infoturismo@getxo.eus

UZTAILAK 29 OSTEGUNA

Antzerkia. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Yo, Musolini", Leo Bassiren eskutik. Sarrera: 12€.

UZTAILAK 30 OSTIRALA

Antzerkia. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Ez dokero", Tartean Teatroskin. Sarrera: 12€.

XXIII San Inazio kontzertua. 20:15ean, San Inazio parrokiaren José Antonio Urdiain tenorearen eta Pedro Guallar organo-jotzailearen eskutik.

UZTAILAK 31 LARUNBATA

Ingurumen Areatoa. 10:30-13:30. Bolueko esploratzaileak: ekintza autogidatua. 10:30-12:00 eta 12:00-13:30. "Haritz eta bere lagunak". Ginkana, ezagutu itzazu Arboretumeko zuhaitzak www.ingurumenaretoagetxo.eus

ABUZTUAK 3 ASTEARTEA

Letren Terrazak. Areetako eta Algortako Geltokia plazetan eta Aldapa parkean. Orduetgia: 11:30-13:30 eta 17:00-20:00, astelehenetik ostiralera. Hilaren 27ra arte. Gainera, liburuak irakurtzeko guneak izango dira Fudurako kanpoko igerilekuetan eta Algortako Merkatuan.

ABUZTUAK 8 IGANDEA

Bisita gidatua eta antzeztutakoa. "deapie". Antonio Basagoiti. 11:30-12:45. Abuztuaren 15ean errepikatuko da. Abuztuaren 22an eta 29an, ordu berean, antzeztutako gidatutako bisita Juana Bizcarraren ingurukoa izango da. Informazio gehiago: Turismo bulegoa: 94 491 08 00 / infoturismo@getxo.eus.

GARBIGUNE MUGIKORRA
GARBIGUNE MÓVIL

GETXO
AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
UZTAILAREN 29tik - ABUZTUAREN 12ra
Del 29 de JULIO al 12 de AGOSTO

ELKARRIKIN LANEAN, BIZKAIA GARBIA BURLAN
COLABORANDO PARA UNA BIZKAIA LIMPIA

Garbikerren Garbigune mugikorra Areetako Geltokia plazara heldu da

Abuztuaren 12ra arte Areetako Geltokia plazan Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikitako Garbiker, enpresa publikoaren Garbigune mugikorra egongo da.

Garbikerrek bultzatutako kanpaina da eta Udalaren babesa du zerbitzuak, birziklapenaren kontzeptua Bizkaiko herritarrentzat errazagoa eta hurbilagoa egiteko, hau da, pertsonak egun dauden ohiko garbiguneetara joateko aukera emateaz gain, udal-mugarte barruan bertan ere, udalerriko erdiko gune batean ere, egin ahal izateko.

Utzi daitezkeen hondakin motak

Garbikerren Garbigune mugikorrean utzi daitezkeen hondakinak hurrengoak dira: elektrotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko olioak (ontzi itxietan), sakelako telefonoak, kableak, pintura eta disolbatzaileak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, toner eta tintazko kartutxoak, metalezko eta plastikozko kapsulak, pilak, CD, DVD eta kaseteak eta erradiografiak.

Udalerrian dagoen bitartean, hondakinak eguneko edozein ordutan utzi ahal izango dira bertan.

Garbigune mugikor honek,

Udalak udalerriko zenbait tokitan astean zehar eskaintzen duen Puntu Garbi mugikorren zerbitzua indartuko du, etxean sortutako hondakin arriskutsuen eta arriskutsuak ez diren tamaina ertaineko hondakinen bilketari estaldura handiagoa emateko (egunak eta ordutegiak: <http://getxo.info-citi.es/eu/noticias/punto-limpio-movi>).

Gogoratu, bestalde, Aiboan Garbigune iraunkorra dagoela, aste osoan zabalik egoten dena, hain zuzen ere, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara; eta larunbat eta igandetan, 09:00etatik 13:30era.

Ikastetxeen partaidetza mantentzen da Adikzioen Prebentzioko programetan

Udalerriko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzetako zentro guztien partaidetza Udalak antolatutako Adikzioen Prebentzioko eskola-programetan errepikatzen da urtez urte, azken ikasturtean COVID-19ak eragindako osasun egoerara egokitzeko hainbat aldaketa egin behar izan arren. Ikastetxe batzuek programa batean hartzen dute parte eta beste batzuek ekimen ugaritan. "Datorren ikasturteari begira, Prebentzio Zerbitzuak ohiko helburuei eutsiko die, hala nola gaitasun pertsonal positiboak eskuratzen laguntzea (autorregulazio emozionala, balioak), substantzien erabilera desegokiaren aurrean arriskuak prebenitzen eta murrizten laguntzea, eta teknologia berrien erabilera arduratsua sustatzea, beti ere, edukiera murriztuz eta beharrezko osasun-neurriak hartuz, hel daitezkeen egoerara egokitzeko. Ikastetxeak

animatzen ditugu tailerretan parte hartzera, pandemiak eragindako egoeran oraindik ere beharrezkoagoak direlako", azaldu du Carmen Díaz, Gizarte Kohesioko zinegotziak.

2020/2021eko ikasturtean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 13 ikastetxetako 188 gelako 3.790 ikaslek parte hartu dute Adikzioen Prebentzio Programako jardueretako batean. Beste urte batez, asertibitatea lantzen duen Apika ipuin-kontalariaren jarduera oso positibotzat baloratu da, eta baita Emokiren tailerrak ere. Horietan emozioak kudeatzen lagundu dute harreman afektibo-sexual osasuntsuak garatzeko. Datorren ikasturteari begira, Lagunekin Baratzean txotxongiloen ohiko jarduera berreskuratu ahal izatea espero da, aurten segurtasun baldintzak erres-

petatzeko publikoarekin ezin izan baita egin.

Bestalde, udalerriko 8 ikastetxetako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 81 ikasgelatako 1.749 ikaslek aukera izan dute drogamendekotasunen prebentzioari, alkoholaren eta drogen arriskuari, apustuei, on line jokoari, sare sozialen erabilera egokiari eta abarri buruzko tailerretan parte hartzeko. Gai horiek datorren urtean ere landuko dituzte ikasgeletan.

Gobelako kiroldegiaren itxiera

Gobelako kiroldegia itxita egongo da abuztuaren 1etik 31ra instalazioen urteko mantentze- eta berrikuspen-lanak egiteko.



- Lan bila nabil lanaldi osokoa edo ordukakoa, garbiketa egiteko edo adinekoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 632 411 553.

- Lan bila nabil garbitasun eta plantxa beharretarako, esperientziarekin. Sara. Tel.: 650 740 110.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxea garbitzeko eta lizatzeke. Lola. Tel.: 656 73 60 01.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: Ainhoa Galduroz
Zuzendaria: Javier García.
Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.
Erredakzioa: Nekane Ardanza.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20.
48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Bostnan Bilbao, S.L.
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.
Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua
Gordailu legala: BI-388-87

STAFF >



Judith Mateo



Amparanoia

Sarrerak abuztuaren 2an jarriko dira salgai

Carlos Nuñez, Amparanoia, Judith Mateo, Roberto eta Miren Etxebarria, eta «Cyclical Tango» proiektua Getxoko Folken protagonistak

Irailaren 22tik 26ra bitartean Getxoko Muxikebarri zentroan izango den Nazioarteko 37. Folk Jaialdiak bere ekitaldien egitaraua itxita du. Guztira zortzi emanaldi izango dira hurrengo hiru ildo tematiko nagusirekin: familia-transmisioaren balioa tradiziozko musikan, emakumearen garrantzia musika mota horretan eta Astor Piazzolla tangoaren musikagile eta artistaren jaiotzaren mendeu-

Kontzertu nagusiak 19:00etan izango dira, eta irailaren 22an, asteazkenean, abiatuko da jaialdia, Roberto eta Miren Etxebarria aita-alabak osatutako trikitilari bikotearen eskutik. Antzinako koplak oinarri dituen *Hamaikatu koplak, pandero baten konture!* beren azken lana aurkeztuko dute oraingoan. Hilaren 23an, Judith Mateo folk-rock biolin-jotzaileak, genero horretako instrumentista onenetakotzat jotzen dutenak, bere zazpigarren albumeko

abestiak aurkeztuko ditu, *Alma de un violín* izeneko. Hurrengo egunean, irailak 24, Amparo Sanchez abeslaria buru duen Amparanoia fusio talde enblematikoak *Himnopsis colectiva* lan berria gerturatuko dio publikoari.

Hilaren 25ean Carlos Nuñez gaita jotzaile ezagunaren saioa izango da. Folk zeltaren erakusle ospetsuak, *A irmandade das estrelas* debuteko diskoaren 25. urteurrena ospatuko du. Horretarako, bes-

renaren oroitzapena. Carlos Nuñez, Amparanoia, Judith Mateo, eta Roberto eta Miren Etxebarria artista eta taldeen kontzertuak nabarmendu behar dira, Fabian Carbone bandoneonistak bultzatutako Cyclical Tango ikuskizuna ahaztu gabe. Sarrerak abuztuaren 2an jarriko dira salgai Kutxabanken sarean, Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean.

teak beste, tresna anitz jotzen dituen bere anaia Xurxo Nuñez, eta Itsaso eta Iruñe Elizagoien ahizpek osatutako trikitixa bikotea izango ditu lagun agertokian.

Cyclical Tango ikuskizunak itxiko du saio nagusien eskaintza irailaren 26an, igandean. Fabian Carbone bandoneonistak bultzatutako proiektua honen bitartez omenaldia egingo diote Astor Piazzolla tango konpositore eta musikari handia bere jaiotzaren mendeu-

rrena dela eta.

Beste saio batzuk

Getxo Folk jaialdiaren programa zioak familia osoarentzako doako emanaldiak ere eskainiko ditu. Hain zuzen ere, irailaren 25ean, larunbatean, 12:30ean, Titiriteros de Binéfar eta 17:00etan Trakamatraka (gonbidapenak abuztuaren 2tik aurrera jaso ahal izango dira RKEan eta Muxikebarrin). Irailaren 26an, 12:30ean, Bitartearen taldea izango da.

Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek “Ez dok ero” aurkeztuko dute Muxikebarrin

Tartean Teatroak larunbatean, uztailak 30, 19:00etan, *Ez dok ero* antzezpena aurkeztuko du Muxikebarrin. Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira muntaiaren aktoreak eta sarreraren prezioa 12€-koa. Bertan euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen irudi deformatua, barrugarria eta aluzinatua aurkezten dute, *road movie* era eroan.

Literatura unibertsean oinarritutako bi arketipotan daude oinarrituta bi pertsonaiak. Mikelek On Kixoteren irudia ekarriko digu gogora, idealismo erabatekoa, ongia egiteko gogo eutsiezina, gloria erdiesteko grina eta errealitatearen interpretazio eszentrikoaz. Bes-

talde, Patxok Santxo Panza baten itxura hartuko du, bere pragmatikotasun erabatekoa, anbizioarik eza ikaragarria eta baldarkeriarekin. Bestea bezain zoroa. Urteetan bikoite artistikoa osatu ondoren, antzerkia uzteko unea heldu zaie.

Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa baina Mikelotek antzerkiaren pozoia sakon errotuta dago bere zainetan eta horrek egoera korapilatsuak bizitzea eragingo du.

Hitzordua Biotz Alairekin San Lorentzoko urteroko kontzertuan

Datorren abuztuaren 10ean, asteartean, San Lorentzo eguna ospatuko da, urtero bezala Getxon Biotz Alai abesbatzaren eskutik izaten den ohiko kontzertuarekin. 1923. urtean sortu zen ahots baxuen talde enblematiko horrek orain arte hainbat sari lortu ditu eta 2016tik aurrera Juanlu Díaz-Emparanza du zuzendari.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da Muxikebarrin eta sarrera gonbidape-

naren bidez izango da. Hori Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin eska daiteke, azken kasuan abuztuaren 2an eta 3an goizez, eta agortzen ez badira, kontzertuaren egunean bertan, ordu bat hasi aurretik.

“Entre comas” pintura erakusketa RKEan

Alex Martín Caseyk *Entre comas* izeneko pintura erakusketa erakutsiko du abuztuaren 13ra arte RKE-Romo Kultur Etxean. Erakusketak marrazkietatik sortu diren hainbat lan biltzen ditu. Horiek dira abiapuntua, baina, abstrakzioaren bidez, lehen irudi hori plano diagonalen, pintura-arrasteen eta abarren bidez enkriptatuta geratzen da. Horrek hondoaren eta irudiaren arteko aldea zehaztugabeko obrak ematen ditu emaitza gisa. Esperimentazioa lan-prozesu gisa eta geruzakako pintura izan dira seriearen ardatza.

Interesa dutenek erakusketa bisitatu ahal izango dute asteleheneetik ostiralera 8:30etik 21:30era, eta asteburuetan 9:30etik 20:30era.



67 paella Itxas Argiaren LXVI. Lehiaketan

67 paellak parte hartu zuten joan den igandean, hilak 25, Nazioarteko Paella Lehiaketan, Itxas Argiak gizarte sareen bidez antolatuta. Bigarren edizio birtual honetan zozketa bidez emandako lehen hiru sariak *Prekak* (200€) *Sauta* (150€) y *Koandrilla* (100€), izenekoentzat izan ziren, hurrenez hurren. Laugarren saria (100€), Facebooken eta Instagramen like gehien lortu zuen paellarentzat izan zen eta ia bezala *Txuspitarrak*-ek eraman zuen, eta apainketa originalenaren bosgarren saria (100€) *Txoritokirentzat*. Bonoak Lehiaketaren saltoki laguntzaileetan gastatzeko dira, datorren azaroaren 30a baino lehen.

Hainbat jarduera Kirol Portuan jende ororentzat geldialdia aprobetxatuz

Mini Gascogna nazioarteko estropada Getxon

Port Bourgenay (Les Sables-d'Olonneren hegoaldearekiko 20 km-tara dagoena) eta Getxo uztartzen dituen Mini Gascogna nazioarteko estropadaren 72 ontziak gure udalerrian dira. Horrela Getxoko Kirol Portua datorren abuztuaren 3ra arte ikusle zaleentzako eta gehienbat Frantziatik baina halaber Italiatik, Alemaniatik, Suitzatik, Belgikatik, Uruguaitik eta EEBB-tik datozen ehunka estropadalarientzako erreferentziazko tokia bihurtuko da. Bigarren eta behin-betiko etaparen irteera, helmuga portu frantziarrean duena, hilaren 3an ospatuko da, 13:00etan. Mini Gascognak 2023ko edizioan Getxon egingo du geldialdia berriro.



Jarduerak

Ostegunetik, uztailaren 29tik, abuztuaren 3ra arte, Kirol Portuak jende ororentzako doako jarduerak eskainiko ditu. Horien artean, Ereagako hondartzaren garbiketa sinbolikoa uztailaren 31n, 17:00etan, ozeanoak eta itsasertzak babesteko esku-hartzean eta hedapenean oinarritzen dena

eta irabazi asmorik gabeko Sea Cleaners erakunde frantsesak antolatzen duena. Hilak 31n bertan eta abuztuaren 1ean, 20:00etan, doako kontzertuak antolatuko dira, baina eremuko ostalaritza lokaletako mahaietan edukiera mugatua izanik.

Estropada dela eta, joan den hilean 200 ikasle getxotarrek Kirol Portua

bisitatu zuten belaren kirola eta bereziki Mini Gascogna estropada ezagutzeko. Gainera, Getxo Itsas Hub sortu berriak itsas sektorearen eta irristaketaren ekonomia zirkularrari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen. Jardunaldi profesional honek Getxorako sektore estrategiko honetako pertsona ekintzaileak bildu zituen, kirolarekin eta ongizatearekin lotutako

teknologiaren industriaren aldeko bere apustuaren baitan. Getxo erreferentziazko udalerrri bezala finkatu da belaren eta nautikaren pertsona zaleentzat dagozkien modalitate guztietan. Zerbaitengatik biltzen du Euskadin eskura dauden amarradura guztien % 20a. Informazio gehiago: <https://www.puru-challenge-race.com/>




Arenasek 2021/22 denboraldiko lehen entrenamendua egin du

Arenasek 2021/22 denboraldiko lehen futbol entrenamendua egin du. Joan den astean, Franqui Egusquigirre presidentek eta Toño Vadillo kirol-zuzendariak lehen saioa baino lehen hitzaldi laburra eskaini ondoren, staff teknikoa eta laguntzaileak aurkeztu zituzten, baita plantilla ere. Hurrengo jokalarik hauek berriro dute kontratua datorren denboraldirako: Uranga, Murua, Jon Vega, Celihueta, Ibargoien, Estrada, Arzuaga, Letamendia eta Jurgi Oteo.

Inkorporazio berriak hauek dira: Joritz, Aritz Castro, Grande, Jonma, Lazkano, Zorrilla, Cortezón, Rozas eta Arzalluz.

Gainera, ordu eta erdi baino gehiagoko saioan aritu ziren Arenas taldeko hainbat jokalarik ohi eta jokalarik gazte, eta baita frogaldian dauden beste batzuk ere. Ohorezko Gazte Mailako entrenatzailea den Otman taldeko entrenatzaile berria den Iban Fagoagari laguntzen aritu zen saio horretan.




Fadura Tennis Kluba, Euskadiko taldekako txapelkun haur mailan

Fadura Tennis Klubak Euskadiko taldekako haur mailako txapelketa irabazi du joan den larunbatean, uztailaren 24an, Getxo Kirolaren instalazioetan jokatu zen Donostiako Pinter tenis taldeari irabazi ondoren.

Euskal Federazioak lau tenis talderik onenak deitu zituen: Bizkaiko bi (anfritioia izan zen CT Fadura eta CT Plentzia), Arabako bat (CT Mendizorrota) eta Donostiako bat (CT Pinter). Banakako lau partida

jokatzen dira, eta berdinketa egonez gero, bikotekako partida bat berdinketa hausteko. Arratsaldeko finalean, Fadura eta Pinterren artean, berdindu egin zen eta bina-kakoa jokatu behar izan zuten, eta getxoztarrek irabazi zuten.

Emaitza horri esker 15 egun barru umeen taldekako Espainiako Txapelketa jokatzeko sailkatu dira. Datorren igandean izango da, abuztuaren 8an, Bartzelonako "De La Salut" Tennis Klubean.



Berdegune gehiago eta murriztuko diren aparkaleku-plazak hasieran aurreikusitakoak baino gutxiago Areeta, Zugatzarte eta Algorta etorbideetako proiektuan

Andres Isasi Musika Eskolaren eta Ama Mesedeetako elizaren aurreko espazioetan zuhaitz eta berdegune gehiago jartzea; oinezkoen segurtasuna erraztea Musika Eskolaren aurrean, eta Mesedeetako kalearen eta Areeta etorbidearen arteko bidegurutzetan kendu beharreko aparkalekuen kopurua murriztea dira Areeta, Zugatzarte eta Algorta (Bizkaia Zubitik eta Dario Regoyos kalearen eta Neguriko gasolindegia arteko bidegurutzeraino) etorbideetako hiri-eraldaketarako proiektuan kontuan hartuko diren herritarren ekarpenetako batzuk. Ekarpentok kontuan hartuko dira hiribideen eraldaketarako proiektuan. Maiztean egindako hiru erakusketen emaitza dira. Guztira 67 ekarpen jaso ziren web eta postontzi elektronikoen bidez (baliozko 60). *“Alde batera utzi dira proiektuaren aurkako edo aldeko iritziak, bai eta proiektuarekin loturarik ez dutenak ere, eta kontuan hartu dira herritarrek kezkatzen dituzten gaien buruzko konponbiderako ekarpenak; izan ere, ekarpen horiek erantzun arrazoitua jaso baitezakete, arrazoi teknikoak baliatuz ekarpen horiek proiektuan sartzea edo ez sartzea bidezko aldera”*, adierazi du Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Proiektuan sar daitezkeen iradokizunak

- Proiektua itsasoaren aldean lerrokadura-zuhaitz gehiago jartzen saiatuko da, baina espaloian dauden zerbitzu ugariak baldintzatzen dute horren bidegarritasuna.
- Berdegune eta zuhaitz gehiago jarriko dira Andres Isasi Musika Eskolaren eta Mesedeetako elizaren aurrean, eta horien bidegarritasuna bateragarri egingo da egungo lurzoruen azpiko zerbitzurik gabeko espazioarekin.
- Oinezkoentzako pasabideetan kale atseginagoak eta segurtasun handiagoa izate aldera, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako plataforma bakarra egingo da Musika Eskolaren aurrean, harik eta elizako sarrera igaro arte.
- Argiztapenak inguruko estetikoa hobetuko du eta biribilguneetan eta oinezkoentzako pasabideetan indartuko da, baita pasabide eta gurutze nagusietan ere. Era berean, argiztapenaren estilo klasiko bat mantenduko



da Musika Eskolaren inguruan.

- Mesedeetako kalearen eta Areeta etorbidearen arteko bidegurutzeta berrikusiko da, hasierako proiektuan kendu beharreko aparkaleku-kopurua murrizte aldera.
- Segurtasuna sustatuko da zirkulazioen banalerroan, eta seinalez tapena oinezkoen pasabideei, igarobideei, kaleen gurutzaketei eta biribilguneei lehentasuna emateko.
- Zugatzarteko lorategietako berdeguneen eta bideen arteko integrazioa areagotuko da, eta kaleen elkarguneetan hormigoizko hesiak edo itxiturak kenduko dira.

Proiektuan sartu ez diren iradokizunak

Kontuan hartu ez diren iradokizunen artean, hala nola Algortarako norabidean errei bakarra uztea, adierazi behar da gaur egun Zugatzarte hiribidean egunean % 71,42 ibilgailu gehiago dagoela Algortarako norabidean, Lertegiko bidegurutzetik Areetarako norabidean baino. Gainera, Algortarako noranzkoan bidegurutze ugari daude (egunean 3.870 ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira Pinar alean, eta bertara sartzen dira ibilgailuok,

edo Lertegi, 3.350 ibilgailu baino gehiagorekin), Klubeko irteera, Zugatzarte 20-22, Andrés Larrazabal, Ondategi, Cervantes eta abarreko pasabideak. Areetarako norabidean, aparkaleku gutxi batzuk dituzten etxebizitzetako edo kaleetako pasabideetarako sarbideak daude; hala, bizikleta-kotxe bidegurutzetako elkarreragina handiagoa da kontrako aldean. Beraz, Algortako noranzkoan ezin da erreirik kendu.

Zugatzarteko lorategietan ez da jardungo, planteatu den bezala, herritarren aisiarako eta gozamenarako gunetzat hartzen baita, eta berdeguneak areagotuko dira. Ezin izango da bereizgailu opakurik izan bizikleten eta ibilgailuen zirkulazioaren artean, elkarreragin-eremu zehatz batzuetan ikusmen-bereizgailuak zailduko litzaitekelako.

Bidegorria Zugatzartetik hurbilen dagoen erreira pasatzeko eskaerari dagokionez, horrek txirriandulazientzat, oinezkoentzat eta ibilgailuentzat segurtasun falta ekarriko luke, Barria eta triangeluaren artean dauden kale guztietara sartzeko birak daudelako.

Behin betiko proposamena

Ekarpentak jaso ondoren Udal Gobernuak aurreikusten du obra, zeinaren premisak mugikortasun jasagarria, segurtasuna eta efizientzia energetikoa diren, aza-

roan hastea, 6 hilabeteko egikaritze-epearekin.

Gogoratu proiektuaren jardura nagusienetakoak honako hauek direla: herritarrek egoteko eta gozatzeko bi gune prestatuko dira, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolaren aurrean eta Ama Mesedeetako elizaren aurrean; zirkulazioa berrantolatuko da eta lasaituko da hainbat bidegurutzetan, biribilguneak sortuz: La Avanzadan eta Arriluze-Ereagarako zuzengunean, Lertegi kalean, Andrés Larrazabal eta Areeta etorbidearen elkargunean, eta Pinar eta Club kaleetako sarbidean; joan-etorriko bidegorrien sareari jarraipena emango zaio trazatu osoan, kasu batzuetan beste bidegorri batzuekin konektatuz eta etorkizuneko loturekin lotzeko aukera emanez; espaloiak zabalduko dira, autobus-geltokiak bereiziko dira, eta herriko argien eraginkortasun energetikoa hobetuko da led argiekin, kontsumoan % 45 aurreztuz.

Proiektuak 5.000m² baino gehiago irabazten dizkio ibilgailuari mugikortasun iraunkorren alde, eta 1.300m² baino gehiago galtzadari, aisialdirako eta pertsonen gozamenarako guneen alde; 34.000 m² baino gehiagoko azalera egingo dira lanak eta hiri-bilbean ia 2 km bide integratuko dira.

Udal talde politikoaren iritzia



MASKARAK ETA ARDURA

"Maskara erabiltzea, eskuak garbitzea, pertsonen arteko distantzia eta pertsona asko batzen dituzten ekitaldietan ez parte hartzea norberaren esku dauden neurri txikiak dira, baina COVID19aren pandemia ez zabaltzen laguntzen dute. Ez dirudi hain zaila denik betetzea... Koronabirusaren agertze berrien partaidea izan ez gaitzen".

Horrela hasi genuen duela urtebete, udako oporren aurretik, ikasturteko azken Getxoberriko EAJ-PNVren artikulua. Eta, une honetan orduan baino hobea goaude ere, tunel gogor eta luze baten amaierarako ikuspegi hobearrekin, Osakidetza-aren txertaketa prozesu eredu-garri batekin, hau gaur egun mantentzen den mezu bat izaten jarraitzen du. Jada uda sasoiaren sartuta goaude, kaleran denbora gehiago igarotzeko garaian, oporren eta 2021ean ere ezberdina izaten jarraitu beharko duen aisialdiaren sasoiaren murgilduta. Urte honetan egoera ez zaigu ezezaguna izango: norbanakoen ardurak egintza kolektiboen oinarritzko alderdia izango diren uda izango da



oraingo honetan ere. Uda honetan ez da edozein motatako jaien ospakizunik izango, eta erakunde zein osasun arloko adituek osasunerako arriskuak ekiditeko arretaz jarduteko eskatzen digute beste behin ere. Ezagutzen ditugu maskara erabiltzeko neurri minimoak ez betetzearen, eskuak dagokion bezala ez garbitzearen, pertsonen arteko

distantziak ez mantentzearen eta jende-pilaketen ondorioak zeintzuk diren. Une zail baten aurrean goaude berriro ere oraingo honetan, kutsatzearen inguruko datu txarrek. Baina badakigu guztion artean egoera hau hobetzea lortu genezakeela.

Artikulu hau borobil genezake berriro ere joan den urteko artikuluan erabili genituen hitz berberak erabiliz: "Erakundeek, udalak, aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak hartzen dituzten neurriak erabat bateragarriak dira guk guztiok, Getxon bizi eta lan egiten dugunok eta udalerriaz gozaten dugunok, hartzen ditugunekin; izan ere, geuk hartzen ditugun neurriak geure ardura erakusten dute. Maskara erabili, eskuak garbitu eta tartea utzi: lortuko dugu".

Goza dezagun 2021eko uda honetan, datozkigun udazken eta negu hauetan tunel gogor honen amaiera benetan ikusten hastea ahalbidetuko duen moduan.

MASKARA, MASKARA ETA MASKARA.



"BROCANTE" IZAERAKO AZOKAK GETXO DINAMIZATZEKO



Garai gogorak dira eta udalerriko ekonomia dinamizatzeko bideak aurkitu behar ditugu. Horregatik, "brocante" izenagatik ezagunagoak diren produktu zaharren eta bigarren eskuko produktuen merkatu publikoak sortzea iradokitzen diogu udalari. Udalaren eginkizuna merkatua tokirik egokienean egiteko deialdia egitea izango litzateke. Horrez gain, hileroko edo asteroko

maiztasuna ezarri beharko luke. Gainera, izen-emateak ireki eta erabilera-arauak ezarri beharko litzuzke merkatuaren funtzionamendu egokirako. Merkatu hauek gure udalerriko ekonomia indartuko lukete, turismoa erakarriko lukete eta Getxo urte osoan zehar dinamizatuko lukete. Guzti hori modu jasagarrian: birziklapena eta berrerabilpena sustatuz. #esnatugetxo

ehbildu

GORA GETXO ANTIFAXISTA!

Aurreko astean Getxon eta Uribe Kostan faxistek egindako margozketek agerian utzi dute faxismoari aurre egiten jarraitu behar diogula. EH Bildutik irmo salatu nahi ditugu eraso hauek: "zorras separatistas os vamos a violar" bezalako margozketa matxistak, gazte antolakundeei mehatxuak edota Algortako AEK-ko Lauaxeta euskaltegiaren pertsianan egindako pintadak. Aurrean izango gaituzue!

Zoritxarrez, beste behin ere, ez zen adostasunik egon Getxoko Udaleko bozeramaile batzordean. PPK hasieratik esan zuen ez zuela bat egingo adierazpenekin (frankismoa nostalgiaz oroitzen dute nonbait) eta gaituzteko alderdiek ez zuten onartu EH Bildutik aurkeztu genuen proposamena. Beste bat adostu zuten, gure

ustez epelagoa, euskaltegiari beren beregi babesik adierazten ez ziona eta faxismoari aurre egiteko inolako konpromisorik zehazten ez zuena.

Guretzat ez du zentzu handirik adierazpen instituzionalak onartzeak konpromisoak hartu barik. Paperak dena eusten baitu. Hori dela eta, uztaileko osoko bilkuran bertan hainbat ekimen aurkeztuko ditugu gai honekin lotuta: Udalak urtero ekitaldi bat antolatzea errepresio frankistaren biktimak oroitzeko (tartean, Getxoko Udalean 1937. urtean kargugabetu ziren 42 langileak), Getxoko memoria historikoa lantzeko ikerketa-bekak abiatzea eta abar.

Oroimenik gabeko herria etorkizunik gabeko herria delako, Getxo antifaxista, euskaldun eta feministaren alde borrokan jarraituko dugu!



HIRI ZAINZAILA HELBURUTZAT



Pandemiak zerbait erakutsi badigu, gure bizitzak sostengatzeko zaintzek duten garrantzia da. PSE-EEtik eskerrak ematen ditugu Udalbatza osoak onartu zuen **Getxo Ekinez** Udal Planak komunitate errukiorren garapena sustatzen duen Getxo Zurekin bezalako proiektu baten aldeko apustua egin ahal izanagatik. Gizarte bezala inoiz baino garrantzitsuagoa den helburu bat ezarri behar diogu gure buruari: **zaintza eta laguntza pertsona guztion ardura direnaren inguruko kon-**

tzientzia hartzea. Getxoko biztanleen artean mendekotasuna duten pertsona asko daude: bizitzaren amaieran garatutako gaixotasunak dituztenak, arrazoi ezberdinengatik gertuko heriotzak bizi dituztenak edo askotariko galerengatik dolua bizi dutenak. **Kasu guzti horiek hiri zaintzaile batetik modu eraginkorragoan jorratu daitezkeen bakardade egoerak sortzen dituzte pertsonengan.** Zaintza eta laguntza gizarte bateratuago eta solidario bat eraikitzeke funtsezko oinarriak dira. Azken finean, enpatikoagoa eta errukitsuagoa. Aktiba dezagun gure komunitatea!



BIZITZA PROIEKTU GABE GETXON

2018ari eta 2019ari dagozkien Getxoko Alokairuentzako Laguntzak berriki abiatu dira. 3 eta 2 urteko atzerapenarekin. Gainera, laguntza hauek urtebete baino ezin dira jaso, eta ondoren ezin dira berriro ere eskatu: gobernu taldearen ustetan, gaur egungo egoeran, urtebeteko alokairua emantzipazioarako eta bizi proiektu bat hasteko behar besteko laguntza da. Gainera, gogora ekar de-

zagun gobernu kideak diren EAJk eta PSEk baliogabetu egin zutela udalak errentamendu kontratuak gehiegizko prezioak ezartzearen aurka neurriak hartzeko eskatuz aurkeztu genuen mozioa. Getxon gertatzen ari den zentzugabekeria hau deskribatzeko hitzik ez dugu aurkitzen: Estatu osoko errentamendu prezio altuenetarikoa dituen hiri bat. elkarrekinpodemos@getxo.eus